

BEGOÑA SANZBERRO, UPN

-Aroztegiako proiektua Udalez Gaindiko Plan Sektorial bezala tramitatu eta Udalari berea den konpetentzia kentzea zuzena iruditzen zaizu? Zergatik?

Konpetentzia desberdinak dira, Plan Sektoriala tresna urbanistiko bat da, ez da lehenbiziko aldia ibiltzen dena, Lekarozko kanpua adibidez PSIS bidez egin zen. Aroztegiako proiektuak ez du Baztanen bakarrik eragiten, inguruko zonaldean ere bai. Hortaz, PSIS tresna ere egokia da.

-Zer da zuretako garapen jasangarria? Garapen eredu honen aldekoa al zara? Aroztegiako proiektu urbanistikoa garapen jasangarri eredu baten barnean sar daitekeela uste duzu?

Baztan udal haundia da, orain arte bere biztanleak lana kanpoan bilatzera behartuak daude. Hori bai ez dela jasangarria. Hortaz, beharrezkoa da hau eta bertze proiektu batzuk bultzatzea, Baztanen bizitzeko goizetik gauera. Urbanistikoki proiektu hau mugatuta dago bere faseekin, poliki-poliki eraiki, saldu eta okupatu ahala eginez joanen da. Hau ez da hala gertatu bertze proiektu batzuetan.

-Lekaroztarrak 2009. urtean lurren birkalifikazioaren kontra agertu ziren eta berdin, proiektu urbanistikoaren kontra agertu dira ordutik egin diren batzarreetan. Zein da Lekaroztarren, hau da, proiektu honen eragin zuzena jasango duten herritarren hitza ez errespetatzearen arrazoa?

Baztanen 15 herri dira, baina erabakiak bat bezala hartzen dira gai guzietan, Baztango udalean. Batzarreak, gure ordenantzak biltzen duten bezala, konsultiboak dira. Herritarren hitzak beren errepresentazioa Baztango Udaleko zinegotzietan dauka.

-Baztango herritarrak herri galdeketa bidez proiektuaren aurka agertuko balira, erabaki hau babestu eta defendatuko al zenuke?

Ez dut uste galdeketa egiteko momentua hau denik. PSISaren prozesua hasi zenean behar bada bai, baina orduan ez zen doikebe beharrezkoa ikusi.

-UPNk beharrezkoa ikusten al du Baztanen 800 etxebizitza huts daudenean, 340 biztanle dituen Lekaroz herrian, 238 etxebizitza berri eraikitzea? Zergatik?

Erran dudana bezala, zenbat etxebizitza egingo diren Aroztegia inguruan jendeak bere askatasunean erabakiko du. Erosten badira, etxebizitzak eraikiz joanen dira proiektu guztia bere osotasunean osatu arte. Ez badira erosten, ez. Etxebizitzak hutsik egon arren, beren jabeak badituzte eta bakoitzak erabakitzen du non nahi duen bizi. Gaur egun ere gertatzen da Baztango herri guzietan, nahiz eta etxebizitzak hutsak

egon, jendeak lizentzia eskatzen du etxebizitza berri bat egiteko, eta arau urbanistikoak betez gero lizentzia bere eskubidea da.

-Almandozen 238 etxebizitza berri eraikitzea gustatuko al litzaizuke?

Nahiago nuke Almandozen tokia balego. Edozein gisaz nahiago dut dudarik gabe herri bat bizirik ikusi, biztanle berriekin, ezenez herri bat hilzorian ikusi. Biztanle gehiagorekin akaso aukera izanen genuke zenbait zerbitzu ere izateko; eskola, dendak... Bertzenaz, baserrian bezala gaude, edozein gauza behar dugula kotxeen bidez mugitu behar dugu, eta hori garesti eta arriskutsua da, gainera ez dago edozeinen eskuetan.

-Nola baloratzen duzu PSISaren ondorioz zenbait lekaroztarrei beren lur pribatuak eta baztandar guztiei gure herri lurrak kendu edo espropiatzea enpresa partikular baten proiektu urbanistikoa gauzatu ahal izateko?

Edozein garapen urbanistiko egiten delarik, udaletan ere, ez dira lurrak espropiatzen, proiektu barnean sartzen dira eta beren aprobetxamenduak lurren proportzioara mantentzen dira. Bertzalde, legearen arabera horrelako garapenetan udalari eman beharko zaizkio (aprobetxamendu urbanistikoak).

-Proiektu honek onurak bertzerik ez dituenek, eta lana ekarriko duenez, zenbat Aroztegia egiteko prest egonen zinatekete? Lurrak soberan ditu Baztanek herri bakoitzeko bana egiteko, ezta?

Espero dut proiektu hau aurrera ateratzen bada onurak ekarriko dituela, baina aipatzea ere herri bakoitzean Aroztegia bat egiterena... txiste bat da. Txistea den bezala txuleta ona delakoan, txuleta egunero jatea.

-Zeintzuk dira Aroztegia proiektua egiteak dakartzan onurak eta kalteak?

Hasteko, proiektu pribatu baten aurrean gaude, beraz Udalak ez du sos bat ere pagatu beharrik, irabazi baizik. Lanpostuak sortuko ditu, bai proiektua martxan dagonean eta baita eraikuntza prozesua gauzatu bitartean. Honek Baztandarrei aukerak irekitzen dizkie, bertan lan egin eta bizitzeko. Inguruan ere eragina izanen du, turistak ekarriko baititu eta zonaldeko ekonomia guzien kontsumitzaileak izanen dira. Egia errateko, industria aski garbia da eta gure ingurumenarendako egokia.

Ez zait kalterik gogoratzen.

-Inguru horretan etxebizitza behar erreala zein den aztertu da? Etxeak egin ondotik, hutsik geratzeko arriskurik ez al dago?

Lehen erran bezala, proiektu hau, edo etxebizitza guziak ez dira bere osotasunean eraikiko, lehengoak salduak daudela ikusi arte. Ez dut uste promotoreak hain zozoak izanen direnik dirua harrika botatzeko.